¡El único camino es la lucha!

# 6 DE OCTUBRE · Jornada de Lucha de estudiantes de secundaria

## ¡En defensa de la enseñanza pública! ¡No a los recortes!
## ¡El dinero que se regala a los banqueros para nuestros Institutos!
## ¡Por un futuro digno para la juventud!

Ikasle Sindikatua www.sindicatodeestudiantes.net

La educación pública está sufriendo la ofensiva más brutal desde la caída de la dictadura franquista: reducciones salvajes del presupuesto en los gastos corrientes de los institutos a los que se suman los despidos masivos de profesores en Nafarroa, Catalunya, Galicia, Madrid, Castilla-La Mancha, Extremadura que podrían llegar a 15.000. En el caso de la CAV, el Gobierno de Patxi López afirma que no atacará la educación pública, pero la realidad es que llevan bastante tiempo haciéndolo: en 2 años han recortado más de 160 millones de euros, reduciendo la plantilla de profesores y retrasando las sustituciones, las Haurreskolak y el presupuesto para el euskera... La Diputación de Álava en manos del PP ha eliminado las becas para los libros de texto.

Estos ataques forman parte de las medidas que los gobiernos están llevando a cabo a favor de los grandes banqueros y empresarios. El gobierno del PSOE, en pleno verano, ha aprobado reformas que empeoran las condiciones de vida y trabajo de los jóvenes, como el encadenamiento indefinido de los contratos temporales o el contrato de aprendizaje hasta los 30 años, con salarios y condiciones laborales de miseria. O la reforma de la Constitución, acordada junto con el PP, para asegurar que los banqueros reciben el pago de intereses multimillonarios por el pago de la deuda pública a costa del recorte salvaje del gasto social.

A eso hay que añadirle los cierres de empresas y amenazas de deslocalización que hoy afectan a nuestros padres y que mañana nos cierran el futuro a la juventud, como en Nervacero (Bizkaia), Esmaltaciones San Ignacio y Daewoo (Álava) y otras muchas. Estudiamos para tener un puesto de trabajo digno en el futuro y ser útiles a la sociedad, por eso su lucha es nuestra lucha.

### ¡Tenemos fuerza para frenar los ataques! ¡El 6 de octubre todos a la calle! Un paso para unificar la lucha y confluir en una Huelga General de toda la Comunidad Educativa

Los jóvenes estudiantes hemos aprendido mucho estos meses. Con la irrupción del 15-M y las manifestaciones masivas, la idea de que la unión hace la fuerza y que la movilización es la única alternativa útil contra los ataques, se ha confirmado. Si hemos podido tomar la calle, conquistar las plazas, enfrentar la represión, qué no podríamos hacer organizándonos en cada instituto o en cada empresa con métodos democráticos, basados en las asambleas, la participación directa, la extensión y la unificación de la lucha.

Los sindicatos de profesores han convocado en diferentes días movilizaciones o huelgas en Nafarroa, Galicia, Madrid,... que Ikasle Sindikatua apoya. Pero los ataques son los mismos en todo el estado, de ahí que debamos unir nuestras fuerzas y luchar juntos. Por eso defendemos la unificación de las movilizaciones de profesores, estudiantes, madres y padres de alumnos, a través de una **Huelga General de toda la comunidad educativa.**

Como un paso en esa dirección, desde Ikasle Sindikatua llamamos a todos los estudiantes de instituto a participar en una Jornada de Lucha el 6 de octubre, con paros en los centros de estudio y organizar manifestaciones y concentraciones en nuestras ciudades y pueblos en defensa de la enseñanza pública. Hacemos un llamamiento a LAB, STEE-EILAS, ELA, CCOO, UGT, Ikasle Abertzaleak, Asociaciones de Madres y Padres y al movimiento 15-M para unirnos ese día en una gran movilización en defensa de la educación pública.

### Preparar el éxito de la lucha del 6 de octubre en los institutos

Hay que organizar asambleas democráticas en cada instituto en las que todos puedan opinar libremente, formar comités de lucha, hacer propaganda, pancartas, asambleas por clases, pegadas de carteles, pedir el apoyo de profesores, del AMPA, y dirigirnos a las empresas en lucha y a los barrios obreros para informar de la movilización e invitarles a que participen.

- **No a los recortes**. Aumento presupuestario drástico para los centros públicos, basta de dinero público a la privada. No al despido de profesores.
- **Basta de ataques al euskera.** Por una educación pública euskaldun de calidad.
- **Dignificación de la FP.**
- **No a la selectividad.** Basta de aumentar las tasas académicas y de endurecer las normas de permanencia en la universidad pública.
- **Por un puesto de trabajo digno y bien pagado al terminar los estudio**s. No a los contratos basura y a los salarios de miseria.
- **Contra el paro juvenil.** Subsidio indefinido de 1.100 euros al mes para los parados hasta encontrar empleo
- **Ni un euro público a los banqueros, empresarios y especuladores**. ¡Que se nacionalice la banca y los recursos que generan los trabajadores vayan a sanidad, educación, y a dar empleo a millones de parados!

**ACUDE A LAS 12:00 H A LAS CONCENTRACIONES:**
**BilbO: Plaza del Arriaga**
**Gasteiz: Plaza de Correos**

**Borroka da bide bakarra!**

# URRIAREN 6ean bigarren hezkuntzako ikasleen Borroka Jardunaldia

## Hezkuntza publikoaren defentsan! Murrizketarik ez! Bankariei oparitzen zaien dirua gure Institutuentzat!

**Ikasle Sindikatua** **www.sindicatodeestudiantes.net**

Hezkuntza publikoaren aurkako eraso basatiak gogortzen ari dira: aurrekontuen murrizketa basatiak institutuetako gastu arruntetan eta irakasleen kaleratze masiboak Nafarroan, Katalunian, Galizian, Madrilen, Gaztela-Mantxan, Extremaduran... (15.000ra iritsi daitezke). EAEren kasuan, Patxi Lopezen Gobernuak adierazi du ez duela hezkuntza publikoa erasotuko, baina errealitateak erakusten du denbora daramakitela hori egiten: 2 urtetan 160 milioi euro baino gehiago murriztu dituzte, irakasleen plantilak murriztuz, ordezkapenak atzeratuz, honi gehitzen zaio Haurreskolak gehiago itotzea, udal euskaltegi eta euskararen laguntzen murrizketa... Gainera, Arabako Diputazioan PPk egindako erasoak bezalakoak uzten ari da. Kasu honetan, textu liburuentzako laguntzak kendu dituzte bapatean. Hezkuntza publikoa erasoaldirik handiena sufritzen ari da diktadura frankista erori zenetik, eta bitartean hezkuntza pribatuko patronala mesedetzen ari dira behin eta berriro.

Bankari eta enpresari handien alde gobernuak hartzen ari diren neurrien barruan kokatzen da eraso hau. PSOEren gobernuak, udara erdian, onartutako erreformek gazteen bizi eta lan baldintzak okertzen dituzte: aldi baterako kontratuen kateatze mugagabea edo 30 urterarteko ikasketa kontratuak, miseriazko soldata eta lan baldintzekin. Edo Konstituzioaren erreforma, PPrekin batera adostutakoa, bankariek zor publikoaren ordainketagatik interes multimilioidunen ordainketa jasotzea bermatzeko, gastu sozialaren murrizketa basatia egitearen kontura.

Honi gehitu behar zaizkio gaur gure gurasoei eta bihar gazteriari eragiten dieten enpresa itxierak eta deslokalizazio mehatxuak, Nervacero (Bizkaia), Esmaltaciones San Ignacio eta Daewoo (Araba) eta beste askotan gertatzen ari den bezala. Etorkizunean lanpostu duin bat edukitzeko eta gizarteari baliagarriak izateko ikasten dugu, horregatik beren borroka gure borroka da.

### Indarra daukagu erasoak geratzeko! Urriaren 6ean denok kalera! Pauso bat Hezkuntza Komunitatearen borroka elkartzeko eta Greba Orokorra antolatzeko

Gazte ikasleok asko ikasi dugu azken hilabeteotan. M-15aren agerpenarekin eta manifestazio masiboekin, batasunak indarra egiten duela eta mobilizazioa erasoen aurkako alternatiba bakarra denaren ideia, baieztatu egin da. Kalea hartzea, plazak konkistatzea eta errepresioari aurre egitea lortu badugu, zer ez genuke lortuko institutu bakoitzean edo fabrika bakoitzean metodo demokratikoen bitartez antolatuz, batzarretan oinarrituta, partehartze zuzenarekin, borrokaren zabaltze eta bateratzearekin.

Irakasleen sindikatuek mobilizazio edo grebak deitu dituzte egun ezberdinetan Nafarroan, Galizian, Madrilen..., Ikasle Sindikatuak babesa ematen die. Baina erasoak berberak dira estatu guztian, eta horregatik beharrezkoa da gure indarrak elkartzea eta batera borrokatzea. Guzti honengatik, ikasleen, irakasleen eta ikasleen gurasoen mobilizazioak elkartzea defendatzen dugu, hezkuntza komunitate osoaren Greba Orokor baten bitartez.

Helburu horretan pauso bat emateko asmoz, Ikasle Sindikatuak institutuetako ikasle guztiak urriaren 6ko Borroka Jardunaldian parte hartzera deitzen ditugu, ikastetxeetan paroak eginez eta gure hiri eta herrietan manifestazioak eta kontzentrazioak antolatuz irakaskuntza publikoaren defentsan. Deialdia luzatzen diegu LAB, STEE-EILAS, ELA, CCOO, UGT, Ikasle Abertzaleak, Gurasoen Elkartea eta M-15 mugimenduari, egun horretan mobilizazio handi batean elkartzeko hezkuntza publikoaren defentsan.

### Urriaren 6ko borrokaren arrakasta prestatu Institutuetan

Urriaren 6a arrakastatsua izan dadin beharrezkoa dugu batzar demokratikoak antolatzea institutu bakoitzean, kide bakoitzak bere iritzia modu askean emateko aukera izanez. Gainera, borroka komiteak, propaganda, pankartak, ikasgeletako batzarrak eta kartelen itsasketak antolatu ahal ditzakegu. Horrekin batera irakasleen eta Gurasoen Elkartearen babesa lortu behar dugu, eta kaleetara eta enpresetara joan bizilagunak eta langileak mobilizazioari buruz informatzeko. Plan hauen kontrako gure jarrera eta erabakia indartsu erakutsi behar dugu, ikus dezaten ez dugula borroka geratuko kalitatezko hezkuntza publikoaren gure eskubidea bermatu arte.

- **Murrizketarik ez.** Ikastetxeentzat aurrekontuen handitze zorrotza. Diru publikorik ez pribatuari. Irakasleen kaleratzerik ez.
- **Erasorik ez euskararen aurka**. Kalitatezko hezkuntza publiko euskalduna.
- **LH duin bihurtu.**
- **Selektibitaterik e**z. Tasa akademikoen handitzeari ez. Unibertsitate publikoan mantentzeko neurrien gogortzeari ez.
- **Lanpostu duin eta ondo ordaindutakoa ikasketak bukatzean.** Zabor kontraturik eta miseriazko soldatarik ez.
- **Gazte langabeziaren aurka**. 1.100€ko langabezia laguntza hilabetero langabetu guztientzat enplegu bat aurkitu arte.
- **Euro publikorik ez bankari, enpresari eta espekulatzaileentzat**. Banka nazionalizatu dedila eta langileek sortzen dituzten baliabideak osasunera, hezkuntzara, eta milioika langabeturi enplegua ematera joan daitezela.

**Denok mobilizazioetara 12etan**
**BilbO: Arriaga Plaza**
**Gasteiz: Korreos Plaza**